

Udalerrian bizi diren etorkin-taldeari  
buruzko ikerketa eta diagnosia



**Deba**

DEBEGESA eta Debako Udalari egindako lana



## HELBURUA:

- Deban bizi diren etorkinen inguruan **eskuragarri dugun informazio orokorra** aztertu.
- Informazio hori udaleko nahiz etorkin eta bertako biztanleen ikuspegi eta datuen bidez osatu.
- Inmigrazio esparruan dauden **ekintza arloak** bereiztu eta inplikaturik dauden eragile nagusiak identifikatu, ondoren beraiekin gai hau sakontzeko.



Honela, immigrazioaren arlo honetan udalerriko ekintza estrategia definitzeko **ABIAPUNTUA** ezarri nahi da dokumentu honen bidez. Abiapuntu honetatik, ardatz nagusietan sakontzea posible izango da, ekintza ildo zehatzak garatzeko asmoz.



## METODOLOGIA:

### Ikerketa kuantitatiboa: Iturriak

- Biztanleen Udal Errolda.
- Biztanleriari buruzko datuak (INE)
- Etorकिनen eskolaratzea (Hezkuntza – EJ, ikastetxeak)
- Etorकिन-biztanleriaren enplegu eskatzaileak (INEM)
- Etorकिनen kontratazioa 2007-an (Lanbide)

### Ikerketa kualitatiboa: Metodologia

Aurreko datuetatik abiatuz Debako Udalerrian bizi diren etorkinen ezaugarriak aztertu ditugu, besteak beste, azterketan bildu diren datuak, honako alorretan zentratuz: etorkinen bilakaera udalerrian, nazionalitateen azterketa, adina, sexua, lan egoera e.a.

Era berean, udalerriko eragile batzuekin egin da kontaktua beraien lehenengo ikuspegia jasotzeko immigrazioaren gaiaren inguruan: udaleko gizarte zerbitzuak, ikastetxeak, e.a.

## HASIERAKO HAUSNARKETAK:

✎ **Etorkin- taldearen egoeraren berezitasuna dela eta, kontutan izan behar da datu ofizialek eskaintzen duten errealitatea erlatibizatu egin behar dela.**

Horrela, iturri ofizialetik datorren informazio estatistikoa, beharrezkoa da, zalantzarik gabe. Aitzitik, beti izan behar dugu kontuan badagoela fenomenoaren alde bat jasotzen ez dutena.

✎ **Etorkin-taldearen integrazio prozedurak arlo anitz hartzen ditu : harrera, enplegua, etxebizitza, osasuna, hezkuntza, euskara, kultura, eta abar.**

Ondorioz, edozein ekintza, benetan eraginkorra izateko, arlo guztia hauek hartu beharko ditu kontuan eta halaber beraien arteko koordinazioa beharrezkoa izango da.

# 1. DEBAN BIZI DIREN ETORKINAK



**DEBAKO BIZTANLERIA:**

**5.410 biztanle**



**ETORKINEN BIZTANLERIA:**

**204 biztanle----- %3,7a**

## ESTATUAN, EAEN, GIPUZKOAN ETA DEBAN BIZI DIREN ETORKINAK:



**4.519.554 etorkin**

**biztanleri osoaren % 10a**



**98.524 etorkin**

**biztanleri osoaren % 4,6a**



**29.040 etorkin**

**biztanleri osoaren % 4,1a**



**204 etorkin**

**biztanleri osoaren % 3,7a**

## IMMIGRAZIOAREN BILAKAERA DEBAN:



## Gainontzeko tokietan:

Urtea	Espainiar Estatua	EAE	Gipuzkoa
2000	923.879	21.140	7.903
2002	1.977.946	38.408	11.716
2005	3.730.610	59.166	21.536
2007	4.519.554	98.524	29.040



## DEBAN BIZI DIREN ETORKINAK, BIZITOKIAREN ARABERA



Etorkin gehien bizi diren kaleak	Etorkin kopurua
Astillero kalea	23
Osio kalea	16
Lersundi kalea	15
Prozesio kalea	15
Hondartza kalea	12
Agirretxe kalea	12
Portu kalea	9
Maxpe kalea	8
San Roke kalea	8
Itur kalea	8
Ifar kalea	8
Gainerakoak	70
<b>OROTARA</b>	<b>204</b>

Debako etorkinen %50a zazpi kale artean kokatzen dira

## DEBAN BIZI DIREN ETORKINAK, JATORRIAREN ARABERA:

Udalerriko etorkin-taldearen %100a, **33 lurralde ezberdinetik** dator.

Debako etorkinen **%54a Hegoamerikarra** da.

Dena dela, benetan adierazgarriena dena zera da : Ia etorkinen %50a bost lurraldetik soilik datorrela (Errumania, Bolivia, Brasil, Ekuador eta Nikaragua)


LURRALDEA	ABSOLUTOA	PORTZENTAJEA
Errumania	23	%11,3
Bolivia	22	%10,8
Brasil	22	%10,8
Ekuador	19	%9,3
Nikaragua	16	%7,8
Maroko	15	%7,3
Uruguay	15	%7,3
Portugal	9	%4,4
Venezuela	7	%3,4
Txina	7	%3,4
Frantzia	6	%2,9
Dominikar Errepublika	5	%2,4
Kuba	5	%2,4
Gainerakoak	33	%16,2
<b>OROTARA</b>	<b>204</b>	<b>100</b>

## DEBAN BIZI DIREN ETORKINAK, SEXUAREN ARABERA:

Emakumeen eta gizonen arteko proportzioak honako errealitatea aurkezten du:

➤ EMAKUMEAK	.....	% 57
➤ GIZONAK	.....	% 43

### Jatorriaren arabera:



**Deban** Gipuzkoan eta EAE ez bezala, emakumezkoen portzentajea gizonezkoena baino handiagoa da.

## DEBAN BIZI DIREN ETORKINAK, ADINAREN ARABERA:



ADIN TALDEAK	Debako biztanleria (2007-Urtarrila)		Etorkin biztanleria (2008-Urtarrila)	
	ABSOLUTOA	PORTZENTAJEA	ABSOLUTOA	PORTZENTAJEA
14 urte arte	739	%13,8	14	%6,9
15 - 24 urte	511	%9,6	36	%17,6
25 - 59 urte	2.880	%53,6	147	%72,0
60 urte edo gehiago	1.237	%23,0	7	%3,5
<b>GUZTIRA</b>	<b>5.367</b>	<b>100</b>	<b>204</b>	<b>100</b>

**% 89,6** (Total percentage of immigrants in the 25-59 and 60+ age groups)

\* **OHARRA:** Biztanleria osoaren datuak 2007 hasierakoak dira eta aldiz, etorkinen datuak 2008-koak.

## DEBAN BIZI DIREN ETORKINAK, IKASKETA MAILAREN ARABERA:

IKASKETA MAILA	ABSOLUTOA	PORTZENTAJEA
ANALFABETOAK	0	%0
IKAS. GABE. (idazten eta irakurtzen badakite)	4	%2,1
LEHEN MAILAKOAK	55	<b>%28,6</b>
BIGARREN MAILAKOAK	77	<b>%40,1</b>
GOI MAILAKOAK	35	%18,2
LANBIDE HEZIKETA	20	%10,4
BESTELAKOAK (haurtzaroan)	1	%0,6
GUZTIRA	192*	<b>%100</b>

\* **OHARRA:** Ikasketa mailaren azterketa 192 etorkinetan oinarriturik egina dago, gainontzeko etorkinen kasuan, erroldako datuetan ez baitzen informazio hau zehazten.

 Etorkinen gehiengoak lehen mailako ikasketak ditu.

 Hauei, bigarren mailako ikasketak dituztenak gehitzen bazaizkio,

**Etorkinen  
%68,7a dira**

## 2. LAN MERKATUA



## 2. LAN MERKATUA

### DEBAN BIZI DIREN ETORKINEN BIZTANLERI AKTIBOA:

Etorkinei 2007an egin zitzaizkien kontratu kopurua:

2007 URTEA	GIZONAK		EMAKUMEAK		GUZTIRA	
	Zbk	%	Zbk.	%	Zbk.	%
<b>Etorkin biztanleria</b>	41	%69,5	18	%30,5	59	%100
<b>Bertoko biztanleria</b>	272	%49,7	275	%50,3	547	%100

Deban, 2007 urtean kontraturiko **606** pertsonetatik, **59** soilik (%9,7a) ziren **etorkinak**; eta horietatik **%69,5a gizonak** ziren.

	PERTSONA KONTRATATUAK	KONTRATU KOPURUAK	KONTRATUAK URTEAN
<b>Bertoko Biz.</b>	547	1.352	2,5
<b>Etorkin Biz.</b>	59	103	1,7
<b>Orotara</b>	606	1.455	2,1

**ETORKINEN BATAZ-BESTEKO KONTRATU KOPURUA :**  
pertsonako 1,7 Kontratu

## 2. LAN MERKATUA

### DEBAN BIZI DIREN ETORKINEN BIZTANLERI AKTIBOA:

Etorkinei 2007an egin zitzaizkien kontratu motak

2007 URTEA	GUZTIRA	
	Nº	%
Lanaldi osoko obra-kontratua	18	% 17,5
Lanaldi partzialeko obra-kontratua	10	% 9,7
Lanaldi osoko behin - behineko kontratua	41	% 39,8
Lanaldi partzialeko behin - behineko kontratua	14	% 13,6
Lanaldi osora bihurketa	6	% 5,8
Bitarteko izaera duen kontratua (interinidad)	3	% 2,9
Mugagabeak	7	% 6,8
Bestelakoak	4	% 3,9
<b>OROTARA</b>	<b>103</b>	<b>% 100</b>

**%53,4**

**2007. urtean formalizatu diren Kontratuen artean behin-behineko kontratuak nagusitzen dira**



## 2. LAN MERKATUA

### DEBAN BIZI DIREN ETA LANGABEZIA EGOERAN DAUDEN ETORKINAK:

Deban Langabezia egoeran dauden pertsonak (etorkinak eta bertakoak):

	OROTARA (bertakoak + etorkinak)		Etorkinak	
	Kopurua		Kopurua	%
<b>2005</b>	164		5	%3
<b>2006</b>	152		7	%4,6
<b>2007</b>	142		6	%4,2

Datu hauen arabera, etorkinen langabezia tasa baxua dela esan genezake.

Etorkinen langabezia datuak Sexuaren arabera:

	GIZONEZKOAK		EMAKUMEAK	
	Absolutua	%	Absolutua	%
<b>2005</b>	3	%60	2	%40
<b>2006</b>	4	%57,2	3	%42,8
<b>2007</b>	1	%16,7	5	%83,3

Esanguratsua da langabezia egoeran dauden emakume eta gizonen bilakaera. Horrela, lehenengo bi urteetan gizonak gehiengoaren bitartean, 2007 urtean aldaketa ematen da, langabezia dauden etorkinen %83,3a emakumea dira.

### 3. HEZKUNTZA



*“ Bere integratze sozialean lan egiteaz gain, ikasle hauen euskalduntzean lan egin behar dugu. Era berean, kasu batzuetan, zenbait ikasgaietako oinarriak irakatsi behar izan diegu, denbora luzean eskolatu gabe egon dira eta”.*

Bigarren mailako ikastetxeko zuzendaria



### 3. HEZKUNTZA

#### Deban bizi diren etorkin eskolaratuak:

##### IKASLE KOPURUA:

Gaur egun 24 ikasle etorkin daude eskolaratuak udalerriko zentro ezberdinetan

	2007/2008 IKASTURTEA	
	Zbk	%
Haur eskola	--	--
Lehen hezkuntza	7	% 29,2
DBH	3	% 12,5
Helduen Hezkuntza	13	<b>% 54,1</b>
Arte Eskola	1	% 4,2
<b>OROTARA</b>	<b>24</b>	<b>100%</b>

Nabarmengarria da eskolaratuak dauden %54,1a helduen hezkuntzan matrikulaturik egotea.



### 3. HEZKUNTZA

#### Deban bizi diren etorkin eskolaratuak :

#### Jatorriaren arabera :

2007/2008 Ikasturtea		
	Zbk.	Portzentajea
Errumania	2	%8,2
Bolivia	--	--
Brasil	4	%16,7
Ekuador	--	--
Nikaragua	1	%4,2
Maroko	3	%12,5
Uruguay	1	%4,2
Senegal	4	%16,7
Txina	4	%16,7
Frantzia	1	%4,2
Sahara	1	%4,2
Venezuela	1	%4,2
Gainerakoak	2	%8,2
<b>OROTARA</b>	<b>24</b>	<b>%100</b>


Ikasgeletan, nazionalitate ezbedinetako etorkinen portzentajeak ez du isladatzen herrian nazionalitate horiek duten presentzia. Brasilen kasuan izan ezik.

Brasilekin batera, Senegal eta Txina dira Debako ikasleen artean portzentaje altuena dutenak. Bi herrialde hauek Helduen Hezkuntza presentzia handia dute.

# GOMENDIOAK ETA PROPOSAMENAK

## Hemendik aurrera...

Lehenbiziko azterketa hau abiapuntutzat harturik, aurrerapausoak emateko aukera paregabea aurkezten da, izan ere, egin den datu hauen analisia, azterketaren oinarrietako bat da, baina oso interesgarria izan daiteke Tokiko Plan baten bidez udalerrri mailan azterketa hau zabaldu ahal izatea, udaletxeko sail eta zerbitzuetatik abiatuz, udalerriko beste eragile, hiritar eta etorkiengana iritsiaz..



- Datuek argi eta garbi erakusten dute immigrazioa gorantza doan fenomeno dela. Are gehiago, orain urte batzuk etorkinak hiri eta udalerrri handietan elkartzen baziren ere, egun udalerrri ertainei eta txikiei ere egokitu zaien errealitatea da. Honela, eskualdeko datuek erakusten dute, azken 8 urtetan proportzioan udalerrri txikiek etorkin gehiago jaso dituztela handiek baino.
- Honela, immigrazioa gorantz doan fenomeno da eta etorkizunean badirudi gure udalerriko zati garrantzitsua izango direla etorkinak.
- Ondorioz, udalerrriaren esku dago **etorri berriak diren pertsona hauek gure artean integratzea**, beraiek gugandik ikasiz eta guri ere irakatsiz.